

Fraunhofer IWU-ko Andreas Sterzing Doktorea irakasle-bisitari Mondragon Goi Eskola Politeknikoan

2017/10/25

Joan den astean Fraunhofer IWU-ko Andreas Sterzing Doktorea izan genuen irakasle bisitari Mondragon Goi Eskola Politeknikoan. Bisitaldi honetan, besteak beste, Sterzing Doktoreak gradu eta masterreko ikasleei seminarioak eskaini dizkie "Produkzio eta materialeen eraldaketa teknologien" inguruan. Eskolako ikerketa lerro ezberdinekin ere bilerak izan ditu elkarlanean garatu daitezkeen proiektuak identifikatzeko.



Fraunhofer-Institut für Werkzeugmaschinen und Umformtechnik (IWU) produkzio teknologien ikerketa eta garapenerako berrikuntza gune bat da. Beraien fokoa automobil industrian dago, bereziki karrozeria piezen eta transmisioen fabrikaziorako teknologia eraginkorrak eta produkzio sistema adimentsuak ikertu eta garatzen. 530 ikertzaitetik gora osatzen dute Fraunhofer-Institut für Werkzeugmaschinen und Umformtechnik (IWU) erakundeko lantaldea.

Sterzing Doktorearen bisitaldi gehiago aurreikusten dira 2017-18 kurstoan zehar; hurrengo 2018 otsailean.



Andreas Sterzing doktorea eta Carlos Garcia, Goi Eskola Politeknikoko Koordinatzaile Orokorra